

PANTXIKE TA MARTIN BERTSOTAN

Doinua: "Maritxu, nora zoaz"

1

- Ezagutzen al dozu zuk zereko zera?
- Zuk zertu baino lehen zertu neban bera.
- Zelan zertu zinan zeu hau holan zertzera?
- Zera zertu ezkerodana goitk behera.

2

- Zereko zer batetik hasi ei zan zertzen.
- Zuk ez dakizu, lagun, zer bati igertzen.
- Zer danak hasi dira argira agertzen.
- Zereko zeragaitik hasi zan okertzen.

3

- Zereko zera euki ta ez dauka zerik.
- Zera zer dan nok jakin zera zertu barik?
- Gure zerak zertzeko ez dogu besterik.
- Zerak zertu ezean ez dago zertzerik.

4

- Hainbeste zertu barik esaizu zeozer.
- Honenbeste zertuta hau ez da edozer
- Alperrik zera zertu zertzen al da ezer?
- Zerak zertzen badira zuri ta niri zer?

5

- Osasuna zera da zeragaz batera
- Gitxiagoaz zertu eta jo aurrera
- Bihar zeraren bila joango naz zerera
- Zeureak zertu ondo ta zertuko zera.

- Holan zertzen bagara ezin gara zertu.
- Ez dakit zure zerok gaur zelan agertu.
- Zertzen dagozan zerak baietz gaur aspertu
- Zer ona ez daukanak ezin dau uLertu.

7

- Zereko zerak zertu ditugu gaur errez
- Argi esanda dago ta zertzen da berez
- Ni neu zertuta nago ez dakit ezer bez
- Beti zertzen zara zu alperren alperrez.

8

- Gu biok gaur entzunda zer zertuko dabe?
- Zertuta dagozala biok goi ta behe.
- Zu behintzat ez zara gaur zertxo baten jabe
- Zeu zagoz, zu laguntxo, zer izpirik gabe.

9

- Zereko zer hau zer dan jakin nahi dauanak
- Izango ditu nahiko nekelor ta lanak
- Laster amaitzen dira gaur gure esanak
- Zer zer dan ez dakigu guk jardun garanak.

10

- Agur zereko zerok, zertzekotan nago
- Hainbat kontu zertuta dana argi dago
- Holan zertu ezkerodana gero ta zerago
- Gaur nahiko zertu dogu ta bihar gehiago

A.Martzel